

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### Titularrari errekeritzea ibilgailua bide publikotik kentzeko

Guardiako Diputazio hiribideko 10. zenbakian abandonatutako ibilgailuaren jabeei ezin izan zaie jakinarazpen pertsonalik egin, ez baitakigu non bizi diren; beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunari jakinarazten zaio ibilgailua bide publikotik kentzeko agindua.

Guardiako Udala abandonatutako ibilgailuari buruz izapidetzen ari den espedientea ikusita:

Matrikula: Frantzia 7672PG12.

Modeloa: Mazda.

Titularra: ezezaguna.

Jakinarazten zaizu Guardiako udaletxean eskuragarri daukazula ibilgailu abandonatuari buruz izapidetutako espedientea, eta, zehazki, alkatearen 2021-0243 Ebazpena, non ibilgailu hori hiri hondakintzat jotzen den eta hondakin hori kentzeko eta tratatzeko baimena ematen den, bai eta zehapen espedientea abiarazteko baimena ere. Era berean, aditzera ematen zaizu entzuna izateko eskubidea duzula, prozeduran pertsonatzeko eta alegazioak aurkezteko, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko epean.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, proposamen hori behin betikotzat joko da.

Bestalde, jakinarazten eta eskatzen zaizu hamabost eguneko epean ibilgailua kentzeko, bai eta ohartarazi ere ezen, hori egin ezean, erakunde honek subsidiarioki egingo duela, eta hiri hondakin gisa tratatuko dela eta ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramango dela suntsitu eta deskutsatzeko, 6/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horren berri ematen dizugu, jakinaren gainean egon zaitezten eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluaarekin bat etorritik, honako hau ohartarazten dizugu: izapide egintza bat dela, eta, beraz, ezin dela haren aurkako errekurtsorik jarri.

Egintza behin betiko egintza bihurtzen bada, ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez izanagatik, epe hori igarotakoan aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Guardiako Udalari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean.

Guardia, 2021eko urriaren 13a

*Alkate-lehendakaria*

**LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO**